

**LITERATURA.** Liburuaren Nazioarteko Eguneko azokan euskaraz eta gaztelaniaz gehien saldu ziren liburuak dira

# Sarrionandia eta Saizarbitoria Zilarrezko Euskadi sarien jabe

‘Lagun izoztua’ eta ‘Gúardame bajo tierra’ nobelen salmentengatik saritu dituzte

Itxaro Artola | DONOSTIA

Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* eta Ramon Saizarbitoriaren *Gúardame bajo tierra*, bi eleberririk merezi izan dituzte aurtengo Zilarrezko Euskadi sariak.


Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Egunaren karietara Donostiako Gipuzkoako plazan jartzen duten azokan gehien saldutako euskarazko eta gaztelaniazko liburuei ematen dizkiete sariok Gipuzkoako liburu saltzaileen elkarteak eta Euskadiko Liburu Ganbarak. Eta atzo, urtero bezala, Donostiako liburu azokaren egitarauaren barruan, sari banaketa ekitaldia izan zen. *Gúardame bajo tierra*-ri zegokion plaka Saizarbitoriari berak jaso zuen, eta Sarrionandiaren *Lagun izoztuari* zegokiona, egilearen anaia Txetxu Sarrionandiak.

Jon Jaka Euskadiko Liburu Azokan Batzordeko lehendakaria

riak hasi zuen ekitaldia, Sarrionandiaren figura eta lana gogora ekartzeko. Saria Sarrionandiari emateak erabat pozten zuela adierazi zuen, batez ere Iurretako idazleak euskal kulturari eginiko ekarpenagatik: «Euskal literaturarako egile handienetakoa izateaz gainera, irakurle asko sortzen eta zaleztzen lagundu du bere obra oparo bezain ederrarekin».

**Irakurleek eta idazleek goratu dute ‘Lagun izoztua’**

Bestalde, *Lagun izoztua* nobelarentzat ere izan zituen hitzak Jakak: «*Lagun izoztua*, dakizuen bezala, Sarrionandiaren lehen nobela da. Hori bera bada nahiko nobedade literaturazaleen jakin-mina justifikatzeko. Horrez gain, ordea, eleberririk bikaina dela esan dezaket». Horren lekuko, eleberririk jaso dituen onarpenak aipatu zituen: Joseba Jaka beka, Kritikaren Saria, Beterriko Liburu



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Txetxu Sarrionandia Josebaren anaia eta Ramon Saizarbitoriari atzo jaso zituzten sariak, Donostian.

## JON JAKA

Euskadiko Liburu Azokan presidentea

«Egile handienetakoa izateaz gain, irakurle asko sortzen eta zaleztzen lagundu du Joseba Sarrionandiak»

aipamena eta, orain, Zilarrezko Euskadi.

Ondoren, Alberto Martinez Aranbarri Zilarrezko Euskadi sariak babesten dituen Kutxako kultur ekintzen zuzendariak hartu zuen lekukoa, Saizarbito-

## RAMON SAIZARBITORIA

‘Gúardame bajo tierra’-ren egilea

«Euskal literaturak beste hizkuntzetan ere saltzeko adinako maila baduela erakusten du sari hau jasotzeak»

riaren lan sarituaren inguruan jarduteko. Haren donostiartasunaz gain, pertsonaia indartsuak, lekuen sinesgarritasuna, ironia fina, gai labankorrek jorratzeko tentua, hunkigarritasuna eta oro har liburu osatzen

duten bost istorioen sendotasuna goratu zituen, Saizarbitoriari saria eman aurretik.

Bien bitartean, egileak, bere berezko alorra euskarazkoa dela eta, «gaztelaniaz salduena izate horrekin» arraro samar sentitzen dela aitortu zuen. Hala ere, pozik agertu zen, bi zio nagusirengatik: sari honek euskal literaturak «erdaretan egiten denarekiko lotsarik ez duela eta beste hizkuntzetan ere sal daitekeela» erakusten duelako. Eta, «euskaraz ez dakien irakurlea ere euskal literaturarentzat zabalik dagoela eta garai bateko aurreiritziak gainditu dituela adierazten digulako».

## Alemanierazko Ingeborg Bachmann saria Peter Glaser austriarrak jaso du

Agentziak | KLAGENFURT

Alemanieraz hitz egiten den lurraldeetako —Alemania, Austria eta Suitza— literatur saririk garrantzitsuenetakoa, Ingeborg Bachmann deiturikoa, Austriako Peter Glaser austriako Klagenfurt hirian, *Geschichte von Nights (Ezerezen historia)* narrazioagatik. Idazleak 21.800 euro eskuratu ditu saria irabazita.

Bi kapitulu ditu lehen sariari jabetu den obrak, *Hegoaldea* eta *Iparraldea* deiturikoak. Narratzailea, bere osaba hil ostean, izebaren bila abiatuko da, Egipto, Grezia eta Italiatik barrena, Alemaniako erietxe batean gaixorik aurkitu arte.

Bigarren saria, berriz, Annette Peht alemaniarraren-

tzat izan da, *Insel Vierunddreissig (Uharte hogeita hamalau)* narrazioarengatik. Horrek 10.000 euro jaso ditu.

**Epaimahaikideen eztabaida telebistako espektakulu**

Saria erabakitze orduan epaimahaikak jarraituriko bideak egiten du berezi Ingeborg Bachmann saria, aurkezturiko berrehun lan artean aukeraturiko sei ipuinak telebistaz emititu zuten hiru eguneko irakurketa lehiaketa batean sartu baitziren. Zazpi epaimahaikideek izaniko eztabaida sutua espektakulu bilakatu zuten. ORF telebista publikoak 1977tik antolatzen du sariketa, eta aurten Interneteko atala ireki du. Hala, Internet bidezko botoei esker Christoph Bauer idazlea saritu du publikoak.

azken zenbakia  
**JAKIN** 130/131

Gai nagusia

## Euskal Unibertsitatea

Aldarrikapen baten bilakaera historikoa. MIKEL AIZPURU  
Ba ote dugu behar dugun Unibertsitatea? JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS  
K. Mitxelenaren *ghettotik* euskararen *unibertsora*. XABIER ISASI  
Irakaskuntzaren hizkuntza hautaketa Unibertsitatean. TXILLARDEGI  
*Iritzi bilketa*: Euskal Unibertsitateaz hogeita zortzi iritzi

... eta aurtengo kolaboratzaileak

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI  
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

kultura, literatura, soziolinguistika eta  
komunikazioaren inguruko gertakariak komentatuz

**egin zaituz harpidedun**

Tolosa hiribidea, 103-1.C - 20018 DONOSTIA - Tel.: 943. 21.80.92 - Faxe: 943. 21.82.07 - jakin@jalgi.com